



Jendea sagardoa edaten, Hernaniko Rezola sagardotegian.

«Sagardogileek gehiago egin behar dute, sagardozaleek sortzen baitituzte arazoak»

MAITE SANTANA
HERNANIKO ALDE ZAHARREKO BIZILAGUNA

«Penagarria da iskanbila sortzeri datozen gutxi batzuen erruz, neurri zorrotzak hartu beharra»

TEO ZULOAGA
HERNANIKO UDALTZAINEN BURUA

eta, gainera, denda bat du han. Astebururo dendara joaten denean zikinkeriaz beteta topatzen du sarrera: «Usaina ere jasanezina izaten da eta, askotan, gainera, nik garbitu behar izaten ditut zikinkeriak». Orain arte hartu diren neurriak ez zaizkio nahikoak iruditzen: «Sagardogileek zer-bait gehiago egin beharko lukete, baina bezeroak baitira arazoak sortzen dituztenak». Udaltzain eta garbitzaile gehiago izatea ere lagungarria izango litzakeela iruditzen zaio.

Luis Gonzalezek ere uste du sagardogileek horretan daukaten erantzukizuna sailhezu nahi dutela. Haren esanetan, neurriak hartu beharko litzukete sagardotegietan jendeak gutxiago edan dezan: alkoholemia kontrol gehiago jarri, adibidez. «Garbi geratu da jende askok ez dakiela edaten, eta ez dakiela astakeriarik egin gabe ondo pasatzen. Askotan halako neurri zorrotzak hartzea da konponbide bakarra». Senide batek, adibidez, kargu hartu zion kalean pixa egiten ari zen gazte bati, eta hark ia jo egin zuen. «Herriarrek ezin dugu ezer egin halakoan ingurura».



Jende mardoa bildu zen Sagarrondotik jaialdian. JENURRIK/AMCAZOPRESS

TABERNARIK, AURKA. Neurriak hartzearen kontrakoak dira, oro har, tabernariak. Urteko garairik garrantzitsuenak da sagardo sasoia haintzat, eta halako neurriak hartuta bezeroak galduko litzuketela uste du izena eman nahi ez duen tabernari batek. «Hartzen diren erabakiak tabernen kontrakoak dira beti». Gainera, jende asko arrazoirik gabe kexatzen dela iruditzen zaio. «Kexatu baino, hobe lukete seme-alabei behar bezala portatzen erakustea, askotan haiek baitira istiluak sortzen dituztenak».

Tabernariak ez ezik, Hernaniko udaltzainek ere lan gehiago dute txotx sasoian. Halaxe baieztatu du, behintzat, Teo Zuloagak, udaltzainen burua. Aurtun, gainera, aurrekoetan baino istilu gehiago izan dira. «Egun osoan izan dira arazoak, sagardotegira joan aurretik jendeak Hernanin bertan hasten baitu parranda». Garbi utzi nahi izan du, halere, gutxi batzuk direla arazoak sortzen dituztenak. «Sagardo giroaz gozatzera baino gehiago, iskanbila sortzeri etortzen dira. Penagarria da halengatik gainontzekoentzat kal-

tegarriak diren neurriak hartu behar izatea». Hurrengo urtean udaltzain gehiago kontratatu beharko dituztela iritziz dio. Horrekin bakarrik, halere, ez omen da arazoa konponduko. «Hartzen diren neurriak eraginkorrak izatea parrandazaleen esku dago neurri handi batean».

Loa eta parranda uztartzea ez da kontu erraza, are gutxiago txotx garaian. Hernaniko herritar, tabernari, udaltzain eta sagardogileek ondo dakite hori. Hamar urteren ostean ez dute hori konpondu ahal izan.

JOSE ANGEL GAZTAÑAGA
Gipuzkoako Sagardogileen
Elkarteko presidentea

«Sagardozaleek sagardotegitik kanpo egiten dutena ez da gure erantzukizuna»

A. A.
Donostia

Pozik dago Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko presidente eta Andoingo Gaztañaga sagardotegiko Jose Angel Gaztañaga aurtengo txotx garaiarekin. Jende tamainan ibili da, eta kalitateko sagardoa dastatu ahal izan dute, Gaztañagaren ustez. Hernanin txotx sasoian izaten diren istiluak direla-eta sagardogileek ezer gutxi egin dezaketela uste du.

Hernanin kexak izan dira txotx garaian herrian izaten den zarata, usain eta eraso sexistengatik. Sagardogileei zer iruditzen zaizue hori?

Edozein herritarri bezala, gaizki iruditzen zaigu. Hala ere, hedabideak behar baino garrantzi gehiago ematen diote gaiari. Gainera, arazo horiek ezin dira txotx garaiarekin lotu behar soilik. Asteburu guztietan izaten dira halakoak, ez Hernanin bakarrik, baita Euskal Herriko beste edozein herritan ere.

Zer egin dezakezue zuek horren inguruan?

Ezer gutxi. Guk bezeroak sagardotegian kontrola ditzakegu. Hortik kanpo egiten dutena ez da gure erantzukizuna. Nahiko lan daukagu negozioa zaintzen eta bezeroei zerbitzu ona eskaintzen.

Halako istiluak ez al dute sagardotegien irudia iluntzen?

Ez dut uste. Guk zerbitzu ona ematen badugu, ez dugu arazorik edukiko. Jendea berdin-berdin etorriko da sagardotegira.

Sagardotegian ez al dute arazorik sortzen?

Beti egoten da iskanbila sortzen duen talde txiki bat, baina, oro har, ez. Duela sei urtetik ez dugu aparteko arazorik izan. Oso pozik gaude sagardozaleen jarrerarekin. Disfrutatzera etortzen dira, ez arazoak sortzeri. Oso jende jatorra etortzen da.

Nola konpon daitezke arazoak?

Norberak bere etxean egingo ez lukeena, kalean ere ez egitea. Ingurukoekiko begirunea izan behar da, eta parrandan egon arren zentzuz jokatu. Hori, halere, bakoitzaren esku dago.

Sasoia amaitzeaz dago. Zer moduz joan da?

Nahiko ondo. Garai batean izaten zen betekadurik ez da izan, baina asteburuetan jende asko ibili da. Astegetan, berriz, aurreko urteetan baino bezero gutxiago izango ditugu: %10-15 gutxiago. Etorri direnek, halere, kalitate handiko sagardoa dastatu ahal izan dute. Aurtengo uztu primerakoa izan da.